Energia egoeraren behatokia

24/04/2013

Energia kontsumoa EAEn













Energiaren kontsumoa EAEn

Elektrizitatea

Euskadin kontsumitutako elektrizitateak %9,1 egin zuen behera martxoan, 2012. urteko hil berean izandakoaren aldean. Industrian %4,4 jaitsi zen, zerbitzuan %9,9 eta bizitegietan %20,4. Alde handi horiek hobeto ulertzeko, kontuan hartu behar da aurten Aste Santua martxoan izan dela eta 2012an, ordea, apirilean.

Industria alorretan beherakadak orokorrak izan dira urtearen hasieran. Hala, urteko lehen hiruhilekoaren metatuari dagokionez, itsasontzigintzan %40,1 egin du behera, zementuan %32,3, beiragintzan %12,3 eta kautxuaren eratorrietan %12,2. Siderurgian eta galdagintzan, berriz, lehengo kontsumo mailari eutsi diote (-%0,3).

Gas naturala

Martxoan gas naturalaren kontsumoak %1 egin zuen behera, 2012ko martxoan izandako kontsumoarekin alderatuta. Zentral termikoena %31 jaitsi zen eta gainerako alorrena, aldiz, %8,2 igo zen.

Lehen hiru hilabeteen metatutako kontsumoak %5,1 egin du behera.

Erregaiak garraioan

Otsailean, garraioan erregaien kontsumoa %1,7 igo zen, 2012. urteko hil berean izandakoaren aldean. Gasolinarenak %10,8 egin zuen behera eta A gasolioenak, berriz, %3,3 egin zuen gora.

Urte mugikorrean kontsumoaren aldaketak joranzko joera du; izan ere, dagoeneko %5,8 igo da, aurreko epealdiarekin erkatuta. Joera aldaketa horretan zerikusi handia eduki ahal izan du mugako erkidegoetan Hidrokarburo Zenbaiten Xehekako Salmenten Gaineko Zerga (IVMDH) igo izanak.

Iturriak: EEEk prestatua, CORES, Enagás eta Iberdrolaren datuetan oinarrituta.

Kanpoko Egoera













EAEtik kanpoko egoera

Petrolioaren kontsumoa munduan

Martxoan, munduan petrolioaren kontsumoa egunean 89.7 milioi kupel izan zen (2012ko martxoaren aldean, %1,4 igo zen). Hala, urtebetean, Europar Batasunean %0,8 egin zuen behera kontsumoak, 13,5 Mbd kantitatera iritsiz; AEBetan, ordea, %1,5 igo zen, eta 18,5 Mbd kopuruan kokatu zen. Txinan, %2,6 egin zuen gora, eta 10,6 Mbd kontsumitzera heldu zen.

Munduan, azken sei hilabetean, petrolioaren eguneroko batez besteko kontsumoa %0,8 igo da, oro har, eta Txinan %3,9; Europar Batasunean eta AEBetan, aldiz, %4,5 eta %1,8 jaitsi da, hurrenez hurren.

Energiaren kontsumoa Espainian

Gas naturalaren kontsumoa %4,4 jaitsi zen Espainian, martxoan, 2012n izandakoaren aldean; eta urteko lehen hiruhilekoaren metatutakoak %10,3 egin du behera, iazko epe berean izan zen metatutakoarekin konparatuta.

Elektrizitatearen kontsumoak ere behera egin zuen (%0,8), 2012ko martxoan izandakoarekin erkatuta, eta urte mugikorrari dagokion metatua %4,3 jaitsi da.

Espainiako errepideetan erregaien kontsumoak %6,3 egin zuen behera urtarrilean, 2012ko hil berean izandakoarekin alderatuta; gasolinen kontsumoa %9,6 jaitsi zen, eta %5,5 gasolioen kasuan. Urte mugikorrari dagokion metatuak %6,4 egin du behera (%7,5 gasolinena eta %6,2 gasolioena).

Bestetik, hegazkinetan erabiltzen den kerosenoen kontsumoak %11,3 egin zuen behera urtarrilean, eta 2013an metatua %6,4 jaitsi da.

Iturriak: REE, CORES, Enagás, EEEk prestatua, AIE eta EIAren datuetan oinarrituta.

Energiaren prezioa













Energiaren prezioa

Petrolioaren prezioa
Brent petrolio upelaren batez besteko prezioa 109,2 $ (84,2 €) izan zen martxoan. Urte mugikorraren batez besteko prezioak %3,3 egin zuen behera (+%3,2 eurotan).

Gas naturalaren prezioa
Spot (UK NBP) gas naturalaren prezioa %5,2 igo zen urtarrilean, 2012ko hil berean izandakoarekin erkatuta, eta 26,1 €/MWh izan zen. Alemanian, inportazioaren batez besteko prezioak %3,2 egin zuen behera otsailean, iazko hil berean izandakoaren aldean, eta 28,5 €/MWh iritsi zen

Ikatzaren prezioa
Urtarrilean Ikatzaren prezioa 86,3 €/t CIF ARA izan zen; hori horrela, azken hamabi hilabete hauetan %15,7 jaitsi da.

Elektrizitatearen prezioa
OMIE eguneroko merkatuan, Espainian, elektrizitatearen prezioak %45,5 egin zuen behera martxoan, urtebete lehenago hil horretan izandakoarekin konparatuta, eta 25,9 €/MWh iritsi zen. Duela hiru urtetik ez ziren prezio horiek ikusten.

Erregaien prezioa
EAEn, otsailean, gasolioaren prezioa 1,36 €/l izan zen eta gasolinarena 1,43 €/l. Iazko hil berean izandakoekin alderatuta, prezioak %2,4 eta %4,1 igo ziren, hurrenez hurren.

CO_2-ren prezioa
CO_2-aren EUA baimenaren etorkizuneko prezioa 3,4 €/t izan zen urtarrilean; 2012ko hil horretan izandakoarekin konparatuta, %57,5 egin zuen behera.

Iturriak: EEEk prestatua, OMIE, CESUR, CNE, eta BAFAren datuetan oinarrituta.